

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 253/2018 Foru Agindua, irailaren 7koa, Erriberabeitiko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren (I10/S sektorean eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko) ingurumen txosten estrategikoa ematen duena

Erriberabeitiko arau subsidiarioen aldaketa puntuala (I10/S sektorean eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko) izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuari jarraitu behar zaio, zeina Ingurumen Ebaluazioaren Legeak arautzen baitu (21/2013 Legea, abenduaren 9koa).

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aldaketa puntual horren inguruko ingurumen dokumentu estrategikoa jaso du, Erriberabeitiko Udalak igorria eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxieneko edukari jarraitzen diona, bai eta hirigintza dokumentua ere.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, hasiera eman zion eragiten zien administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako eran.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2018ko irailaren 3an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/90 espedientea).


1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpen txikia. Ebaluatu den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Erriberabeiti udalarreriaren I10 S sektoreari dagokion eta Araba Logistika SA sozietate publiko-pribatuak egin duen aldaketa honen hirigintza xedeak honako hauek dira:

- Eguzki instalazio fotovoltaikoa jarri ahal izatea, 47 hektareako gutxieneko azalera izango duena eta 24 MW-eko gutxi gorabeherako ekoizpen horizontea izango duena.
- Instalazio horrekin lotutako erabilerak eta eraikuntzak arautzea, erreserba estrategiko izae-raz, proiektuaren etorkizuneko garapena ahalbidetzeko.

Instalazio fotovoltaikoa egin ahal izateko, ebaluazioaren gaia den aldaketa puntuala izapidetu beharko da, indarrean dagoen planeamendua aldatu eta proiektatutako egoera lortzeko:



Indarrean dagoen ordenamendu xehatua (I10 S sektorearen Plan Partziala, uztailaren 27ko 655/2006 Foru Arauak –ALHAO 102. zk. behin betiko onartua), zinetan proiektatzen den Arasur plataforma logistikoa hedatzea (2. fasea). Plan Partzialaren proiektuari ingurumen eraginaren ebaluazioa egin zitzaion eta aldeko adierazpena eman zion uztailaren 28ko 659/2006 Foru Arauak (ALHAO, 99. zk.).



Aldaketa puntualaren bidez proiektatuko zonifikazio xehatua, instalazio fotovoltaikoaren gauzatzea proiektatzen duena.

1.2. Ebaluatu den eremu geografikoa:

Aldaketa honen eremua egungo I10/S sektorea da, AP-68 errepidearen eta Arasur plataforma logistikokoaren ekialdean kokatua, honako irudi honetan kolore gorritz markaturik ageri den moduan:



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, hiru aukera kontuan hartu eta aztertu dira:

– “0” aukera (ez da aukeratu): Egungo egoera denbora mugagabean luzatzea ekarriko luke; ez litzateke indarrean dagoen hirigintza plangintza garatuko eta, beraz, ez legoko aukerarik proiektatutako jarduera ekonomikoa eremu horretan jartzeko.

– “1” aukera edo Arasur plataforma logistikoa hedatzea (2. fasea) (ez da aukeratu): Indarrean dagoen planeamendua gauzatzeko ekarriko luke, Arasur plataforma logistikoa eremu horretara hedatzeko (2. fasea) eta Araba Logística SA sozietatu publiko-pribatuak kudeatuko luke. Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, aukera hau ez hautatzeko arrazoiek ez dute zerikusirik ingurumen kontuekin, baizik eta ekonomia- eta kudeaketa-arrazoiekin.

– “2” aukera edo eguzki instalazio fotovoltaikoak jartzea (aukeratutakoa): Hasiera batean Arasur plataforma logistikokoaren 2. faserako aurrekusi zen eremuan eguzki instalazio fotovoltaiko bat jarriko litzateke. Instalazioa jartzeko hainbat aukera aztertu ostean, proiektua Arasur parke logistikokoaren 2. fasearen eremuan kokatzea aukeratu da hainbat arrazoirengatik, sustatzailearen dokumentazioan agertzen direnak, hain zuzen ere:

- Azalera nahikoa dago proiektua gauzatzeko.
- Eguzki panel fotovoltaikoak instalatu eta egoki orientatzeko aukera dago.
- Lurzorua klasifikaturik dago jada hirigintza planeamenduan; beraz, ez da beharrezkoa lurzoru gehiago klasifikatzea.
- Egungo planeamendua erabilera industrialerako lurzorutzat klasifikaturik du eremua, eta hori bateragarria izan daiteke energia ekoizteko egiturekin.
- Lurzorua sozietatu publiko-pribatu baten jabetzakoa da eta, beraz, errazagoa izan daiteke beharrezkoak diren hitzarmenak egitea.

- Ingurumen abantaila handiak ditu.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2018ko ekainaren 14an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Hona hemen kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda eta horietatik zeinek erantzun duen:

| | |
|---|---|
| URA – Uraren Euskal Agentzia | √ |
| Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza | |
| Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza | √ |
| Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza | |
| Arabako Natur Institutua | |
| Ekologistak Martxan Araba | |
| GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea | |
| Eguzki talde ekologista | |
| Hontza natura elkarte | |
| GAIA elkarte | |
| Gasteiz Zero Zabor | |
| Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala) | |
| UAGA (Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte) | |
| IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa | √ |
| Arabako Kontzejuen Elkarte | |
| SEO Bird Life | |
| Erriberabeitiko Udala | |
| Ribabellosako Administrazio Batzarra | |
| Añanako Kuadrilla | |
| Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza | √ |

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/61 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean zehaztu du proiektuaren eremuan ez dela hondakin edo egitura arkeologikoen berririk. Horrez gain, gaineratu duenez, “obran aurkikuntza arkeologikorik atzeman ez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Arkeologia Museoari, dagokion bezala jardun dezan”

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak bere txostenean adierazi duenez, “Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren eskumenen jardun eremuak kontuan hartuta, espedienteak ez du eraginik kultura legeriak edo udalerriko planeamenduko

arau subsidiarioen katalogoak berak babestutako higiezin inongo elementutan eta, hortaz, ez dago eragozpenik hura izapidetzeko”

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenean lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan” Era berean, honela dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez”

- URA - Uraren Euskal Agentziak lehenengo txostena eman zuen 2018ko ekainaren 22an. Bertan, honako hau adierazi zuen: “zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan, komenigarritzat jotzen badu, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoaren arabera”

2018ko uztailearen 17an, URA - Uraren Euskal Agentziak bigarren txostena eman zuen. Horretan, aldaketa puntualaren laburpena egin ondoren, zenbait gogoeta adierazi zituen, zeinetatik honako hauek nabarmentzen baitira:

Jabari publiko hidraulikoari eta uholde arriskuari dagokienez: I10/S sektoretik ez da ibilgurik pasatzen, eta hurbilen dagoena (Zadorra ibaia) kilometro bat baino gehiagoko distantziara dago (...). Proiektatutako urbanizatzeko berriak egitean tartean egongo den ibilguaren drainatzea gehiegi ez aldatzeko, drainatze sistema jasangarriak jarri beharko dira” Bestalde, adierazi zuenez, “aztertutako eremuan ez dago uholde arriskurik” eta iturbururik dagoen aztertzeko prospekzioei dagokienez, “gogorarazten da ur harpenak egiteko, bai gainazalekoak, bai lurrazpikoak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren alde aurreko behin-behineko emakida edo baimena beharko dela”

Hornikuntza/saneamenduari dagokionez: Hornikuntzari dagokionez, ez da aurreikusten egun dauden beharrak nabarmen handituko direnik, baina “beharrezkoa da Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egingo duen adierazpenak zer dioen ikustea” Saneamendua dela eta, URAK egokitzen du hondakinak Arasurreko plataforma logistikoarekin lotzea eta, ondoren, Miranda de Ebroko araztegiarekin.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak gogoeta hauek egin zituen aldaketa puntualaren laburpen xehatua egin ondoren: “zonifikazio xehatuaren planoaren arabera, lurzatiaren perimetroan aurreikusten diren berdeguneek 61.564 m²-ko azalera izango dute guztira. Zuzendaritza honek GISarekin egindako kalkuluen arabera, 9240 habitatean 7.147 m² kenduko dira, eta 6620*-n 5.371 m² galduko dira. Alegia, guztira ezabatuko diren habitaten azalera 9.500 m² da. Kontuan hartuta aurreikusitako berdeguneen azalera 61.564 m² dela, diseinuan inguru horretan izan litekeen landareriaren (erkamezti submediterraneo) antzekoa jartzen ahaleginduz gero, aipatutako habitatetan izango den eragin bateragarritzat jotzen da. Gainontzean, ez da aurreikusten ondare naturalean bereziki kontuan hartu beharreko bestelako eraginik izango denik”

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, aldaketa puntualaren laburpen laburra egin ondoren, bi kontu nabarmendu ditu:

“1. Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean “Bizitegi lurzorua, industrial eta ekipamendu eta azpiegiturentzako” den azalera. (...) horren kalifikazioa irailaren 16ko 177/2014 Dekretuak (2014ko urriaren 17ko ALHAO) behin betiko onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren aplikaziotik kanpo dago.

2. Jarduketa eremuan, bada Bideen Erregistroan inskribatutako landa bide bat (1092 m bide, Ribagudako Administrazio Batzarrarenak, 047-265 kod., egoera onean). Hori dela eta, bertan edo inguruko eremuetan jarduteko (jabetza pribatuko eremuak, zortasun eremuak, eragindako eremuak eta eraikitze mugak) bete egin beharko da 1995eko otsailaren 3ko 6/1995 Foru

Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, mantendu eta zaintzekoan (1995eko otsailaren 27ko ALHAO), xedatutakoa

3. Eragina jaso lezaketen elementuetatik zein diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin garrantzitsuenak.

Erreferentziatzko aldaketa puntualak ez dakar lurzoru ez urbanizagarria birkalifikatzea; izan ere, egun, jarduketa eremua lurzoru urbanizagarri industrializat katalogaturik dago indarrean dagoen hirigintza planeamenduan. Horiek horrela, egungo egoera errealarari dagokionez, eremua nekazal ingurune batean dago eta erkamezti submediterraneo basoguneak ere badirenez, ingurumen eragina izango da, batez ere landaredian eta paisaian, baina baita ingurune beste elementu batzuetan ere, ondoren agertzen den taulan deskribatu den moduan. Ondorioz, beharrezkoa izango da ingurumen integraziorako neurriak hartzea, aldaketa puntual honen eraginak arintzeko:

| ERAGINDAKO INGURUNEN ELEMENTUA/ EREMUA | DESKRIBAPEN LABURRA |
|--|--|
| Eremuan dagoen landaredia | <p>Aldaketa puntuala egingo den eremuan komunitate intereseko habitat gune txiki sakabanatuak daude, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> — 6220* habitata: Gramineoen eta Thero-Brachypodietea espezieko urteko landareen eremu subestepikoak. (5.370 m² gutxi gorabehera) — 9240 habitata: Quercus faginea eta Quercus canariensis espezieetako harizti iberiarrak. (7.145 m² gutxi gorabehera) <p>Egia den arren erkamezti guneak bakanduta daudela eta oso landareria gutxi dagoela bertan, eragina neurriko-latza izan daitekeela uste da, zuhaitz-guneak murriztearen ondorioz ez ezik, lotura ekologikoan eta faunan izango duen eraginatik ere; izan ere, zuhaitz autoktonoak dauden eremu urrietako bat da oso atropizaturik dagoen eta laborantza nagusi den eremuan. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da indarrean dagoen ordenamendu xehatuak aurreikusitako egiten duela landaredia kentzea eta eragin hori baloratu egin zela ingurumen eraginaren ebaluazioan.</p> <p>Hori horrela izanik ere, eta kontuan hartuta aldaketa puntualean aurreikusitako berdeguneen azalera 61.564 m² dela, berdegune horiek eremuan egun dagoen landaredia (erkamezti mediterranea) birsortzeko erabiltzen bada, landaredian izango den eragina bateragarritzat eta are egokitzat ere jotzen da.</p> |
| Paisaia | <p>Proiektua egiteak eragina izango du paisaian. Plaka fotovoltaikoak asko ikusiko dira inguruko garraio azpiegituretatik. Eragin hori neurriko-latzat jotzen da, egungo egoera kontuan hartuta, oraindik ere ez baita garatu indarrean dagoen hirigintza planeamendua; dena den, Arasur plataforma logistikoa handitzea (2. fasea) ekarriko lukeen Plan Partziala garatzeak eragingo lukeena baino garrantzi gutxiagokoa izango litzateke. Horrez gain, kontuan hartu behar da eguneroko paisaia dela, paisaia kalitate urrikoa eta, hortaz, ez dagoela Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Kataloan. Gainera, biztanleria dentsitate txikiko eremu batean dago eta Arasur plataforma logistikoaren ondoan. Instalazio fotovoltaikoan erabiliko diren egiturak 2,5 metro baino txikiagoak izateak ahalbidetu egiten du instalazio erraz integratu eta mimetizatu ahal izatea landaredia hesi baten atzean, eta hori dela eta aldaketa puntualak proposatzen du ustiategi fotovoltaikoaren inguruan berdegunea egitea, inguruan landaredia pantailak jarri ahal izateko. Inguruan jartzeko landaredia pantaila horiek beharrezkotzat jotzen dira proiektuak paisaian izango duen eragina murrizteko.</p> |
| Azaleko urak | <p>I10/S sektorean ez dago ibilgurik, eta gertuen dagoen ibilgua (Zadorra ibaia) kilometro bateko distantziara baino gehiagora dago. Dena den, badira jariatze urak husteko zenbait areka, lurzatian dauden bideen ertzeetan, eta sektorea, oro har, Baias eta Zadorra ibaien arroen banalerroan dago. Horiek horrela, lurzatia erabilera berrirako egokitzeko lurra mugitzeak lurzatiko drainatze uren kalitateari eragin diezaioko zeharka; hori dela eta, aurreikusten da beharrezkoa izango dela ingurune integraziorako neurriak hartzea, ingurumen ebaluazio honen esparruan uraren arloan eskumenak dituen organoak egindako alegazio txostenean jasotako erabakiak betetzeko. Kontu hori sakonago aztertu da txosten honen hurrengo atalean.</p> |
| Atmosfera | <p>Aurreikusten da kutsadura handiagotu egingo dela, lanak egin bitartean zarata eta hauts eta gas isurpenak areagotu egingo baitira. Eragina sentsibilitate baxuko eremuan izango da, industria eremu batetik gertu eta biztanleak bizi diren eremuetatik urrun, nagusiki nekazaritzarako erabiltzen den eremuan, nahiz eta badiren tokiko landareria gune txiki batzuk. Kokapena egokia da ondorio negatibo horiek gutxitzeko.</p> <p>Eragina txikia izango dela aurreikusten da.</p> <p>Horrez gain, ustiatze fasean, instalazioak eragin positiboa izango dela uste da, indarrean dagoen Ordenamendu Xehatua kontuan hartuta; izan ere, instalazio fotovoltaikoek ez dute kutsatzen, eta energia garbitzat jotzen dira, eguzki energia energia elektriko bihurtzen baitute.</p> |

| ERAGINDAKO INGURUNEN ELEMENTUA/ EREMUA | DESKRIBAPEN LABURRA |
|--|---|
| Nekazaritza lurren okupazioa eta produktibitatearen galera | Gehienbat laborantzarako erabiltzen den arren, eragindako eremua ez da EAeko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialeko nekazal balio handiko lurra, egungo planeamenduan erabilera industrialerako lurzoru urbanizagarritzat kalifikatuta baitago. Gaur egun batez ere nekazaritza erabiltzen diren lur horietan eragingo da bai obra garaian, energia fotovoltaiko instalazioa eraikitzean (zangak zulatzean, lurrak mugitzean, obra bideak egitean, instalazio osagarriak jartzean eta materialak eskuratzean) eta baita ustiaketa fasean ere. Eragina txikia izango dela aurreikusten da, kontuan hartuta egungo hirigintza planeamenduak aurreikusita zeukala Arasur plataforma logistikoaren 2. fasearekin jarraitzea bertan. |
| Fauna | Erkamezti gunek kentzeak eragina izango du faunarengan, nahiz eta eragin hori arindu egin daitekeen proiektatutako berdegunean erkamezti mediterraneo gune bat sortuz. Baina, horrez gain, nabarmendu behar da laborantza eremuak interesguneak direla zenbait animalia biziaren biziraupenerako, zenbait espezie bertan egiten dituztelako beren habiak, esaterako, mirotz zuriak, eta gainera, beste zenbait espezie bertan bizi dira, uda aldean, besteak beste, honako hauek: mendebaldeko zingira-mirotza, sugezale europarra eta zapelatz txikia. Horrenbestez, eragina neurrikoa izango dela aurreikusten da, Ingurumen Dokumentu Estrategikoan jasotako ingurune integratzioko neurriek eta txosten honetan jasotakoek arindu egingo baitute. |

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak.

Lehenik eta behin, esan beharra dago Ingurumen Dokumentu Estrategikoak, 12. atalean (“Prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak, aldaketa klimatikoa kontuan hartuta”), ingurumen eragina murrizteko zenbait kontu jasotzen dituela, bai obrak egin aurreko prebentzioarekin lotutakoak, bai aldaketa puntuala dela eta egingo diren obrak egin bitartean zuzendu beharrekoak. Halaber, egokitzat eta proportzionaltzat jotzen da Ingurumen Dokumentu Estrategikoko 13. atala, “Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen jarraipena egiteko aurreikusitako neurrien deskribapena”. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da honako neurri hauek jasotzea Erriberabeitiko I10/S sektorearen aldaketa puntualaren behin betiko onarpenaren hirigintza dokumentuan:

1. Instalazio fotovoltaikoa jartzeko obrak egin bitartean, honako neurri hauek hartu beharko dira:

- Instalazio fotovoltaikoa jartzeko kenduko den landaredi lurrari dagozkion lurzoru horizonteak modu hautatuan kendu beharko dira, eta berehala birbanatzea komeni da, edo, bestela, posible ez bada, metatzea, aldaketa puntualaren eremuko gune batean. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Obrak erasandako eremuetan landareak birlandatzeko eta lurra ordezkatzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare lurra. Landare lurra beste edozertarako erabiltzeko, ingurumen organo honek baimena eman beharko du.

- Kontsulta fasean URAk igorritako alegazio txostenean agertzen diren gidalerroak kontuan hartuta, proiektatutako urbanizatzeko eragindako arroko drainatzea gehiegi aldatzea eragozteko, drainatze sistema jasagarriak jarri beharko dira. Iturbururik dagoen aztertze aurreikusitako prospekzioei dagokienez, “gogorarazten da ur harpenak egiteko, bai gainazalekoak, bai lurrazpikoak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren alde aurreko behin-behineko emakida edo baimena beharko dela”. Hornikuntzari dagokionez, ez da aurreikusten egun dauden beharrak nabarmen handituko direnik, baina “beharrezkoa da Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egingo duen adierazpenak zer dioen ikustea”.

- Koltsulta fasean Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza sailak egindako alegazio txostenean jasotakoaren arabera, jarduketa eremuan Bideen Erregistroan inskribaturik dagoen bide bat dago (1092 m bide, Ribagudako Administrazio Batzarrarenak, 047-265 kod., egoera onean). Hori dela eta, bertan edo inguruko eremuetan jarduteko (jabetza pribatuko eremuak, zortasun eremuak, eragindako eremuak eta eraikitze mugak) bete egin beharko da 1995eko otsailaren 3ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, mantendu eta zaintzekoan (1995eko otsailaren 27ko ALHAO), xedatutakoa.

2. Ingurumen Dokumentu Estrategikoan jasotakoarekin bat etorriz, egokitzen jotzen da aldaketa puntualean aurreikustea “V/1 Berdeguneak” (61.564 m²) gisa kalifikatutako gunean zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen landarediarekin landaberritze lanak egitea, dagokion basoguneak eremu horretako erkamezti submediterraneoak erabilia berregiteko eta, era horretan, instalazio fotovoltaikoa paisaian integrazteko, une honetan existitzen den landaredia autoktonoaren zati bat ahal den neurrian errespetatuz, eta irizpide hauetan oinarrituz:

– Lurra destrinkotzea, moldatzea eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guneetan behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Kalitatezko landare lur geruza bat jartzea, gutxienez 0,4 metrokoa, eta ondoren itxura ematea.

– Lur lantze eta lur harrotze lanak egitea, eta ondoren fintzea, azalerak behar bezala prestatzeko, ereite eta hidroereiterako.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea landare estalki naturala duten eragindako guneetan. Horretarako zopizar espezieak erabiliko dira, gramineoen eta lekadunen nahaste bat, eragina jaso dezakeen eremuko baldintza klimatiko eta edafikoetarako egokia.

– Landatze lanak egitea:

Zuhaitz eta zuhaixka espezieak. Aldaketa puntuala egingo den eremuan berezkoak direnak: erkametza (*Quercus faginea*) eta zuhaixkak inguruan, erkameztiaren mugetan eta soilguneetan, besteak beste, intsusa (*Sambucus nigra*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta marmaratila (*Viburnum lantana*).

Zuhaitzak: Ontzian aurkeztutako aleak, 0,60 m-tik 0,90erakoak, izerdi bat edo bikoak eta sustraiaren lepoan gutxienez zentimetro batekoak. 2 eta 3 metro arteko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxienerako dimentsioak: 0,5 x 0,5 x 0,6 m.

Zuhaixkak: 0,5 m-ko altuera dutenak. Landareen arteko distantzia: 1 m. Zuloaren gutxienerako neurriak: 0,4 x 0,4 x 0,4 m.

Zuloa kalitatezko lurarekin bete ondoren, gainazalean txorko bat egingo da, erradioan 40 cm izango dituen eta ildo bitartean altuera 10 cm-koa, eta 40 litro landareko ureztatzea egingo da. Askatze moteleko ongarria erabiliko da, 100 gr/ale, baita ongarri organiko konpostatuko kilo bat ere.

Landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarritzko babes bat jarriko da, “Horsol” motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m², metro bateko zabalera osokoa, 20 cm lur azpian jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko. Landare guztietan 60 cm-ko garaiera izango duen “Tubex” motako babesgarriak jarriko dira, bai eta akaziako tutore bat ere.

Landatzeko garaia: abendua-otsaila.

Landaketen mantentze integrala. Ur eskasia dagoen aldietan, landaketak ureztatu beharko dira, eta ureztaketa bakoitzean 12 l ur erabili beharko da landare bakoitzeko; lehen ureztaketan, berriz, degradazio moteleko NPK ongarri kimikoaren 100 gramo erantsiko zaio ureztatze urari landare bakoitzeko (3.000 kg/ha). Horrez gain, beharrezkoak izanez gero, ondoztatzeak, saratzeak eta joraketak egingo dira, eta eraketako inausketa bat eta adar hilak eta xurgatzaileak kenduko dira, eta zurkaitzak eta babesgarriak berrituko dira.

Aldaketa puntuala behin betiko onartu aurretik, sustatzaileak “Ingurumen lehengoratzeko eta paisaia integraziorako proiektua” aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari, eta dokumentu horretan, kontuan hartu beharreko obra unitateak definituko dira zehatz-mehatz, baliozkotzat jo daitezkeen edo egokitzen jotzen diren behar beste aldaketa egin daitezkeen.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak baliatuz,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Ingurumen txosten estrategikoa egitea honako honi buruz: "Erriberabeitiko arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 10/S sektoreari buruzkoa, eguzki energia fotovoltaikozko instalazio bat ezartzeko".

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN